



Osakidetza

GORLIZKO OSPITALEA

2022ko Memoria

*Eusbad,
arazteko, bizi, osatu*



Edukien aurkibidea

1. Sarrera

2. Erakundearen testuingurua

3. Gure ikuspegia, estrategia eta plangintza

Plan estrategikoa
Ardatz eta helburu estrategikoak 2014-2020
Urteko Kudeaketa-plana
Estrategia berrikustea
Hedapena

4. Gure eragina pazienteengan

Zentroak eta Ospitaleko zerbitzuak
Programak eta proiektuak
Mugarriak
Gogobetetze-inkesta

5. Gure eragina profesionalengan

Nor gara
Prestakuntza eta irakaskuntza
Lan-osasuna
Euskara
Informatika

6. Gure eragina ingurunean

Gizartea
Ziurtagiriak
Aliantzak eta interes-taldeak
Programak eta proiektuak
Hobekuntzak ekipamenduetan, instalazioetan eta prozesuetan

7. Gure eragina berrikuntza arloan

Berrikuntza-plana eta I+G+b batzordea
Programak eta proiektuak

8. Emaidzak

Emaidza estrategikoak
Emaidzak bezeroen arloan
Emaidzak gizartearen eta ingurumenaren arloan

9. Bukaerako hausnarketa

1. Sarrera

Osakidetzako Gorlizko Ospitalearen 2022 urteko memoria Kudeaketa Aurreratuaren ereduak definitzen dituen atalekin egituratuta dago. Informazio guztia ikuspegiaren, estrategiaren eta plangintzako elementuen arabera ordenatzen du. Horrez gain, pazienteengan, profesionalengan, ingurunean, berrikuntzan eta emaitzetan duen inpaktua ere kontuan hartzen du.

Mugarriak, egindako proiektuak eta horien emaitzak 2022ko Urteko Kudeaketa Planaren arabera izan dira.

Kudeaketaren emaitza horrek adierazten digu Ospitalearen Plan Estrategikoari erantzuten ari garela.

Hori guztia profesional guztiei esker izan da posible, beren lanarekin eta parte-hartzearekin pazienteei, familiei eta gizarteari kalitatezko zerbitzua ematea ahalbidetzen baitute.

Pazienteek zein familiek inkestetan, lantaldeetan eta beren esperientzia lortzeko foroetan parte hartzea ezinbestekoa izan da, eta ezinbestekoa da, prestazioen eta esku-hartzeen balioko emaitzak lortzeko.

Izpta.: Carmen Rodríguez
Zuzendari-gerentea

2. Erakundearen testuingurua

Gorlizko Ospitalea erakunde sanitarioa, Osakidetzaren Sareko zerbitzu sanitarioetako erakundea da; Osakidetza Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko zuzenbide pribatuko Ente Publikoa da.

Patologia azpiakutuak artatzeko zentro bat gara, eta traumatologiako prozesuen errehabilitazioko, prozesu sistemiko orokorretako eta garuneko kaltearen errehabilitazioko unitateak ditugu. Halaber, barne-medikuntzako unitateak ditugu egonkortze- eta suspertze-prozesuetarako eta arreta aringarriko. Ospitalez kanpoko errehabilitazio-zerbitzuak ere eskaintzen ditugu.



Ospitalea GORLIZ udalerrian dago, Bizkaian. Beste zentro batzuekin harremanak ditugu, prozesu batzuetan Bizkaiko eremu geografikoko pazienteak artatzeko, eta beste batzuetan URIBE KOSTA eskualdekoak artatzeko, 2 arlotan: Ospitalekoa eta ospitalez kanpoko.

Ospitaleko jarduera

Ospitalizazioa prozesu moderatu-larria duten pertsoneri zuzendua da, behin aldi akutua gaindituta, kontrola-eboluzioa edota errehabilitazioa behar dutenean, baita arreta aringarriak ere.

Hauek dira arreta hori emateko zerbitzuak:

- o Barne-medikuntza: Egonkortze- eta Susperraldi Unitatea eta Zainketa Aringarrien Unitatea daude.
- o Errehabilitazioa: Prozesu hauetan suspertzea behar duten pazienteak artatzen ditugu:
 - o Hartutako Garuneko Kaltea.
 - o Prozesu traumatologikoak.
 - o Anputazioak
 - o Prozesu neurologiko periferiko larriak.
 - o Desegokitzapen-prozesu konplexuak.

Prozesu asistentzial horiei laguntzeko zeharkako beste prozesu batzuk daude: Pazientearen Segurtasun Klinikoa, Farmazia, Harrera eta Pazienteen kudeaketa, Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta, Altan laguntzea.

Ospitalez kanpoko jarduera

Ospitalez kanpoko arloan bi eskualdetan egiten dugu lan (Barrualde-Galdakaoko ESIa / Barrualdeko Eskualdea eta Uribeko ESIa / Uribe Kostako Eskualdea) 14 osasun-zentro desberdinetan.

Errehabilitazioko kontsulta medikoa eta errehabilitazio terapiak artatzen ditugu.

Ospitaleratzea behar ez duten errehabilitazioko prozesuak dira artatzen ditugunak.

3. Gure ikuspegia, estrategia eta plangintza _____

Plan estrategikoa

2014-2020 aldirako Plan Estrategikoa (2021 eta 2022rako luzatua) dugu, Osakidetzaren erronka eta proiektuekin (2017-2020) eta Osasun Politikarekin (2013-2020) bat etorritz. Plan Estrategiko hori egiteko, Zuzendaritza Kontseiluak Ikuspegi bat eta sei ardatz estrategiko definitu zituen oinarri gisa, aurreko plangintzetan zehaztutako XEDEA eta BALIOAK egokituz.

Xedea, Ikuspegia eta Balioak

XEDEA

Euskal osasun-sare publikoko azpiakutuen ospitalea garen aldetik, Bizkaiko herritarrak kalitatez, zuzentasunez eta gizarte-erantzukizunez artatzen ditugu, betiere arreta-maila horretako eskakizunei jarraituz eta jasangarritasun-irizpideak aintzat hartuz.

IKUSPEGIA

Beste osasun-arreta mailekin ondo integraturiko ospitale bat **izan nahi dugu**, aitzindaria azpiakutuentzako* zainketetan, ezagutua jardueran nabari zaion eragingarritasun, jasangarritasun eta gardentasunagatik, eta orobat ingurumenari dion errespetuagatik. Ospitale ikertzailea, irakaslea eta berritzailea, paziente, senide eta erakundeen parte-hartzea sustatzen duena, eta bertan lanean diharduten langileen inplikazioa eta harrotasuna bultzatzen duena.

* **Azpiakutuen ospitalea**: zentroak artatzen dituen pertsonak ez dute behar konplexutasun handiko neurri diagnostikorik ez terapeutikorik. Batez ere patologia ez-akutua duten pazienteak artatzen ditu, egonkortze-aldian, susperraldian, zainketa aringarrietan eta errehabilitazioko tratamenduan.


BALIOAK

Kidetasun-sentipena duten **pertsonen taldea**. Bertan kideek lanean partaidetzaz dihardute, guztiok aitortuak baikara, konfiantza sortzen da eta eskuzabaltasunez lan egiten da.

- ❖ **Inplikazioa eta konpromisoa** pertsonekin eta gizartearekin.
- ❖ **Dinamismoa**, etenik gabeko hausnarketa pertsonen premiei espiritu berritzailez erantzun ahal izateko, eten gabeko hobekuntzari eta eragingarritasunari begira.
- ❖ Hartutako esperientziaz eta bikaintasunaren bila aurrera egiten laguntzen diguten arloak eten gabe sartuz aberastu den **ezagutza**.

Ardatz eta helburu estrategikoak 2014-2020 (2022rako luzatuak)

Gorlizko Ospitaleko Helburu Estrategikoen erlazioa Osakidetza 2013-2016 Ildo Estrategikoekin




Helburu estrategikoak 2014-2020 (2022rako luzatuak)

<p>1.</p> <p>Pertsoneri eta beraien osasunari zuzendutako ekintzak eta ingurumen-inpaktuko programak finkatu eta aurreratu.</p>	<p>2.</p> <p>Gure prestazioen dimentsio soziala sendatu.</p>	<p>3.</p> <p>Gure profesionalen lanean berrikuntza eta teknologiak sustatu.</p>	<p>4.</p> <p>Gure posizionamendu profesionala bideratu.</p>	<p>5.</p> <p>Jasangarritasun ekonomikoko eta gobernantzako irizpideekin lan egin.</p>	<p>6.</p> <p>Egokitzapen asistentzialak sustatu, helburu integratzailearekin.</p>
--	---	--	--	--	--

Urteko Kudeaketa-plana

PEa gauzatzeko eta kudeatzeko, urtero Urteko Kudeaketa-plana (UKP) ezartzen da. Bertan, urtean zehar egingo diren bideak, proiektuak eta ekintzak planifikatzen dira, PEa garatzeari begira. UKP hori ebaluatu egiten da eta hurrengo urteko UKPari lotu.




EGITURA GORLIZKO OSPITALEAREN HELBURU ESTRATEGIKOEN ARABERA (2014-2020 Plan Estrategikoa)	Planifikatu diren ekintzak	Helburua edo estandarra	UKPean lortutako %
PERTSONAK: OEG 1 "Ingurumeneko egitasmoak finkatzea eta aurreratzea"	2	> % 80	100
PERTSONAK: OEG 2 "Gure prestazioen izari soziala indartzea"	2	> % 80	100
PROFESIONALAK: OEG 3 "Berrikuntza eta teknologiak profesionalen lanean bultzatzea"	6	> % 80	100
PROFESIONALAK: OEG 4 "Gure jarrera profesionala berrorientatzea"	9	> % 80	80
ERAKUNDEA: OEG 5 "Lan egiteko irizpideak jasangarritasun ekonomikoa eta gobernantza izatea"	8	> % 80	100
ERAKUNDEA: OEG 6 "Egokitzapen asistentzialak xede integratzaile batez sustatzea".	6	> % 80	100
GUZTIRA	33	> % 80	97

*2022rako luzatua

Estrategiaren berrikuspena

UKParen (Urteko Kudeaketa-plana) ebaluazioren testuinguruan, Zuzendaritza Taldeak estrategia gainbegiratzen du, emaitzetan, helburuetan eta hurrengo urterako planetan oinarrituta, eta zerbait berri gehitu behar bada, jasota geratzen da eta hurrengo urteko UKPa (Urteko Kudeaketa-plana) egiten da.



Estrategia Prozesuen Maparen bidez hedatzen eta lantzen dugu. Hor, prozesu guztiak biltzen dira, hiru kategoriatan banatuta: estrategikoak, operatiboak eta laguntzakoak.

Aldi berean, aginte-lerrotik ere hedatzen dira CODIAM delakoaren bidez (Zuzendaritza Kontseilu Handitua).

Prozesuen bidezko kudeaketak sistematika bat, estrategia zabaltzen laguntzen duen ordena bat, jarraitzea ahalbidetzen du, eta beraz, helburuak, ekintzak eta emaitzen kontrola egitea, analisis, ebaluazioen eta hobetzeko arloen zikloari jarraitzeko.

UKPak (Urteko Kudeaketa-plana) estrategia hedatzen laguntzen digu, zuzenean PEarekin lotzen gaituelako, hori baita gure zereginaren gida.



4. Gure eragina pazienteengan

Zentroak eta Ospitaleko Zerbitzuak

GORLIZKO OSPITALEA

OSPITALIZAZIOA

BARNE-MEDIKUNTZA
ZAINKETA ARINGARRIAK

54 ohe

ERREHABILITAZIOA

90 ohe



ERREHABILITAZIOKO KANPO-KONTSULTAK

- Neuropsikiatriako k.
- Erhb. Neurologikoko k. (tox. botulinikoaren kontsulta espezifikoa barne.)
- Erhb. Traumatologikoko k.
- Erhb. Orokorreko k.
- Erhb. Baskularreko K. (anputatuak)
- Eskola Osasuneko k.
- Interbentzionismo aurreratuko k.
- Errehabilitazio pediatrikoaren k.
- Kirurgia ondoko paziente traumatologikoei (belauna/sorbaldak) arreta goiztiarra emateko kontsulta

ETU EREMU TERAPEUTIKOA

- Zinesiterapia
- Elektroterapia
- Zitxada lehorra
- Mekanoterapia
- Termoterapia
- Talasoterapia (itsasoko ura duen igerileku klimatizatua)
- Terapia okupazionala
- Logoterapia
- Neuropsikologia
- Neuropsikiatria
- Aisia-estimulua gela
- Eguneko ospitalea belauneko protesietan
- Ebaluazioa eta ibileraren berrentrenamendua.
- Kirurgia ondokoentzako tratamendu-zirkuitua.
- Haurren errehabilitazioa
- Arnas errehabilitazioa
- Talka-uhinak
- Irrati-maiztasuna
- Errehabilitazio teknologikoa eta Telerrehabilitazioa.

Kontsulta ez-presentzialak Lehen Mailako Arretarako.

LAGUNTZA ZERBITZUAK

ERRADIOLOGIA

Ospitaleko erradiologiako zerbitzutik estaldura ematen diegu bai ospitaleari berari eta bai mugetan dauden herrietako anbulatorio eta osasun-zentroei ere.

FARMAZIA


ELIKADURA / SUKALDEA

PEAZ

INFORMAZIOA / HARRERA

INFORMATIKA

MANTENTZE-LANAK



OSPITALEZ KANPOKOAK

ERREHABILITAZIOKO KANPO-
KONSULTAK

ETU EREMU TERAPEUTIKOA

URIBEKO ESIA

Algorta Bidezabal	Zinesiterapia
Algorta Alango	Elektroterapia
Erandio	Termoterapia
Derio	Mekanoterapia
Leioa	Bizkarreko Eskola
Mungia	Taldeko terapiak
Plentzia	Ziztada lehorra
Sopela	Talka-uhinak

BARRUALDE-GALDAKAOko ESIA

Amorebieta	Zinesiterapia
Basauri	Elektroterapia
Galdakao	Termoterapia
Durango	Mekanoterapia
Gernika	Bizkarreko Eskola
Laudio	Taldeko terapiak
Lekeitio	Ziztada lehorra

Orain arte hainbat ambulatoriotan eta osasun-zentrotan egin izan dugun ospitalez kanpoko errehabilitazio-jarduera guztia zentro horien ardura duten ESietara transferitu genuen 2022ko abenduan, bakoitzaren kokapen geografikoaren arabera.

ERREHABILITAZIO NEUROLOGIKOKO ARLOA.

- Programa: Aisia-estimulua gela berraktibatu.
- Programa: Garuneko kaltearen eskola.
- Programa: Garuneko kaltea duen pazientearen maneian senideei/zaintzaileei banakako prestakuntza ematea ohe ondoan, ospitaleko altari begira.
- Programa: Diziplina anitzeko heltze goiztiar kognitibo-konduktuala hartutako kalte zerebrala duen pazientearengan, Neuropsikologia eta Terapia Okupazionalaren aldetik.
- Programa: Disfagiaren balorazioa eta tratamendua elektroestimulazioko teknika erabiliz.
- Programa: Errehabilitazio Neurologikoan arreta partekatua ematea neurologiako mediku espezialistarekin batera, pazienteari ematen zaion arreta hobetzeko.

ERREHABILITAZIO TRAUMATOLOGIKOKO ARLOA.

- Programa: Errehabilitazioko arreta goiztiarra belauneko eta sorbaldako kirurgietan.
- Programa: Eguneko ospitalea belauneko artroplastiako ebakuntza izan duten pazienteentzat.
- Programa: Aldakako haustura duten adineko pazienteei modu integralean heltzea.
- Programa: Aldakako hausturaren eskola.

ERREHABILITAZIO OROKORREKO/BASKULARREKO ARLOA.

- Programa: Anputatuen eskola. Paziente aktiboa sartzea.
- Programa: Covid osteko pazienteari fase azpiakutuan heltze integrala eta diziplina anitzekoa egitea.
- Programa: Polineuropatia periferiko konplexua duten pazienteentzako errehabilitazio integrala.
- Programa: Arnas errehabilitazioa

OSPITALEZ KANPOKO ERREHABILITAZIOKO ARLOA.

- Programa: Haur-neurologiako pazientei arreta ematea.
- Programa: Talka-uhinen terapia.
- Programa: Infiltrazio eta nerbio-blokeo ekogidatuen bidezko tratamendua.
- Programa: Prozesu osteomuskular kronikoa duten pazientei telefonozko kontsulta egitea.
- Ospitalez kanpoko arretan pazientei arreta emateko eredu egokitzeta, telekonsulta eta telerrehabilitazioa sartuta, jarraipen indibidualizatua eginda, bideo bidez ariketak bidalita eta arreta behar pertsonalizatuaren arabera emanda.

BARNE-MEDIKUNTZAKO ARLOA: EGONKORTZEA. ZAINKETA ARINGARRIAK.

- Programa: Paziente pluripatologikoari arreta ematea. Ibilbideak egoitzekin batera. Uribeko ESlaekin eta Barrualde-Galdakaoko ESlaekin integratzea.
- Programa: Behar aringarriak dituen paziente/familiarentzako ekintza-plan integral bio-psiko-soziala.
- Programa: Hilzorian arreta emateko prozedura senideen parte-hartzearekin.
- Programa: Terapia fisikoa aringarrietako paziente onkologikoarentzat.
- Programa: Doluminak emateko karta.
- Innopal programa korporatiboan parte hartzea.

ZEHARKAKOAK: ARLO GUZTIETAN ERAGITEN DUTE

- Programa: Ohean dagoen pazientearen zaintzaileentzako prestakuntza.
- Programa: Senideei laguntzeko taldeak.
- Programa: Senideak / zaintzaileak ahalduentzako estrategia.
- Programa: Loturako erizaina. Altan laguntzeko programa.
- Programa: Arrisku sozialaren balorazioa ospitaleratzean.
- Programa: Kontsulta ez-presentzialak arlo guztietan.
- Programa: Pazientearen segurtasuna.
 - Ospitaleratuta dagoen pazientearen egoera nutrizionalari heltzea.
 - Infekzio nosokomialen prebentzioa, zaintza eta kontrola PVPCIN
 - Segurtasun-kulturaren sustapena.
 - Segurtasun-arriskuen kudeaketa
 - Mendekotasunarekin lotutako larruazaleko lesioei (MLLL) heltzea, prebentzioa eta tratamendua
 - Erorikoen prebentzioa.
 - Pazientea zalantzarik gabe identifikatzea.
 - Medikamentuen erabilera segurua.
 - Antibiotikoen erabilera optimizatzeko programa (PROA)
 - Medikazioa bateragarria izatea.
 - Transfusio-segurtasuna.
 - Tabletak erabiltzea paziente zalantzarik gabe identifikatzeko eta Historia Klinikoan erregistroa egiteko.
 - Antikoagulazio-kontrola.
- Programa: Geriatriako mediku espezialista sartzea, pazienteari ematen zaion arreta hobetzeko.
- Prozesuen araberako kudeaketa-egitura bi prozesutan sinplifikatuta aplikatzea: barne-medikuntzan eta errehabilitazioan.
- Minaren heltze holistikoa.
- Jarduera asistentziala egokitzeko programa.
- Programa: etxeetara gomendioak zabaltzeko komunikazio-sareak ezartzea.
- Arlo asistentzial desberdinetako ikerketa-proiektuekin jarraitzea.
- Unitate Berezietan dauden pazienteentzako balorazioa eta mobilizazio-helburuak egitea.
- Pazienteen asistentziaren jarraitutasuna ziurtatzea. - OSAREANekin lankidetzan aritzea.
- Ekografia klinikoko proiektua, profil profesional guztien eta arreta-eremu guztien (ospitalekoa eta ospitalez kanpokoa) parte-hartzearekin.
 - Erizaintzako eta medikuentzako barne-prestakuntza.
 - Genu-ekografia ezartzea, trebatzaileei prestakuntza emanez.
- Zain barneko terapia-taldea.
- Orbaintzen zailak diren zauri konplexuen erreferentea.
- BPSO proiektua inplementatzea eta garatzea gida kliniko hauekin:
 - Sarbide baskularra.
 - Pertsona eta familia ardatz dituzten zainketak.
 - Zainketen ikuspegi aringarria bizitzaren azken 12 hilabeteetan.
- Programa: ospitaleratuta egon eta hartutako nahasmendua duten pazienteen kasuan, disfagiaren heltze integrala eta diziplina anitzekoa egitea, barne harturik irenketaren ebaluazio fibroskopiak (FEES) egitea eta elikagaiak, dietak eta errezetak gomendatzea (liburua).
- Programa: arreta partekatua, ospitaleko errehabilitazio-unitateetako diziplina anitzeko taldeetan barne-medikuntzako mediku espezialista sartuz.
- Programa: pazienteentzako/familientzako errehabilitazio-terapien Eguneroko Agenda Indibidualizatua.

Gorlizko Ospitaleak ere parte hartzen du asistentziaren eta pazientearen segurtasunaren arloan ospitaleari eragiten dioten proiektu korporatiboetan.

LANKIDETZA-PROIEKTUAK

- Patologia osteomuskularra duen pazienteari heltzeko plana URIBE ESIan.
- URIBE ESIko eremu kritikoetan ospitaleratutako COVID pazientearen arnas errehabilitazioa.
- Patologia osteomuskularra duen pazienteari heltzeko plana BARRUALDE ESIan.
- Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta ESIko Medikuntza Prebentiboarekin eta POUrekin lankidetzan aritzeko proiektua.
- Uribe ESIko Urologiarekin lankidetzaproiektua, zainketa aringarriak behar dituzten pazienteen kasurako.
- Uribe ESIko zainketa aringarrien batzordean parte hartzea.
- Uribe ESIko batzorde soziosanitarioan parte hartzea.

- BPSO programa implementatzea eta hedatzea, hiru gida ezartzeko:
 - Pertsona eta familia ardatz dituzten zainketak
 - Sarbide baskularra
 - Zainketen ikuspegi aringarria bizitzaren azken hamabi hilabeteetan.
- ZBT taldearen esku-hartzea sendotzea sarbide baskularrei dagokienean: prozedurak sortzea, ezartzea, adierazleen jarraipena egitea.
- Hiltzen Laguntzeko Batzordea sortzea.
- Mediku Geriatra ospitale-jardueran sartzea.
- Gorlizko Ospitaleko berrikuntza eta ikerketa sendotzea, proiektu-bolumen handiarekin.
- Praktika asistentziala hobetzen duen teknologia berria sartzea eta/edo berritzea: irrati-maiztasuna, talka-uhinak ospitalean, oreka-plataforma, garezurrean zeharreko estimulazioa, ergoespirometroa, telemetria-monitoreak, desfibriladoreen monitoreak, etab.
- Haurren errehabilitazioa sendotzea.
- Psikologiaren esku-hartzea sendotzea hiru eremu klinikotan, prozesu guztietan.
- Lidergo-eredu berri bat ezartzea, gainbegirale klinikoaren figura definituz, zainketei eta banakako asistentzia-praktikari begira.
- Nursing Reserch Challenge proiektu korporatiboan parte hartzeko deialdia gainditzea eta onarpena jasotzea.




Kexa, erreklamazio eta iradokizun guztiak Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzuaren bidez (PEAZ) kudeatzen eta erantzuten dira. Horrez gain, ospitalizazio eremuetan paziente eta senideentzako iradokizun-postontziak daude.



PEAZ-EN ADIERAZLEAK MONOTORIZATZEA					
	2018	2019	2020	2021	2022
ARRISKU SOZIALAREN ESTALDURAREN INDIZEA	79	83	50	83	80
ESKU-HARTZEAREN INDIZEA	70	77	78	100	118
KEXA-KOPURUA	19	20	13	19	31
ERREKLAMAZIO-KOPURUA	90	235	165	251	423
ESKER ONEN KOPURUA	26	27	15	18	13
<30 EGUNETAN EBATZITAKOEN %	100	99	100	100	100
ALTAK	1.926	1.882	2.067	1.932	1.742
KEXA-TASA 100 ALTAKO	1,0	1,1	0,6	1,0	1,8
URTEKO HELBURUA (<AURREKO BI URTEETAKO BATEZ BESTEKOA)	1,9	1,3	1,0	0,8	0,9

KEXA-TASA 100 ALTAKO



Era berean, pazienteen gogobetetzea inkesta korporatibo espezifikoien bidez ere ebaluatzen dugu, bai lehen mailako arretaren arloan, bai ospitaleko arretaren arloan.

GURE PAZIENTEEN GOGOBEETZE OROKORRA JASOTAKO ASISTENTZIAREKIN (I)

IRISGARRITASUNA	H.Gorliz	Osakidetza
P1- Ospitaleratzeko abisatu zizutenean antolatzeko izan zenuen DENBORA baloratu [0-10]	8,2	8,3
INFORMAZIOA		
P2- Baloratu logelara iristean zuri edo zure familiari eman zizkizuten FUNTZIONAMENDU-ARAUEI BURUZKO INFORMAZIOA [0-10]	8,3	8,2
P3- Baloratu ospitalean egon zinenean artatu zintuen osasun-profesionalak eman zizun INFORMAZIOA ulertzeko ARGITASUNA ETA ERRAZTASUNA [0-10]	8,5	8,8
P4- Baloratu arreta eman zizuten langileekin zuri edo zure familiari sortutako edozein ZALANTZA GALDETU ETA ARGITU ZENEZAKEELA sentitu zenuen [0-10]	8,4	8,8
HUMANIZAZIOA		
P5- Baloratu ospitalean egon zinenean artatu zintuzten langileek emandako TRATUA [0-10]	8,7	9,1
P6- Baloratu gelen eta instalazioen EROSOTASUNA [0-10]	7,9	8,5
P7- Baloratu gelen eta instalazioen GARBITASUNA [0-10]	8,5	9,0
P8- Baloratu ospitaleko MENUA [0-10]	8,4	8,4
P9- Baloratu osasun-arreta eman zizuten langileek ZURE ZAINKETETAN (dieta, ariketak, medikazioa, nor bere burua zaintzeko jarraibideak, higiene-zainketak...) PARTE HARTZEKO aukera eman zizuten [0-10]	8,6	8,8
P10- Baloratu MINA KENTZEKO edo gutxitzeko eman zizuten TRATAMENDUAREKIKO ZURE GOGOBEETETASUNA [0-10]	8,7	8,6
P11- GAUEKO ATSEDENALDIAN izandako errespetua	8,5	8,6
KOORDINAZIOA / TRANTSIZIO ASISTENTZIALAK		
P12- Ospitaleratuta egon bitartean KOORDINAZIOA ZEGOEN artatu zintuzten OSASUN-LANGILEEN artean, zure osasun-arazoa edo ospitaleko egonaldian gerta zitekeen edozein konplikazio hobetzeko. [0-10]	8,6	8,7
P13- Ahal zen guztia egin zen OSPITALETIK IRTETEAN BEHAR ZENITUEN LAGUNTZAK (etxeko laguntza, baliabideak eta ortopediaren kudeaketa, deribazioa eta/edo gizarte-laguntza...) antolatuta zenituela ziurtatzeko. [0-10]	7,9	7,9
P14- OSPITALETIK TRATAMENDU MEDIKO/ZAINTZA-JARRAIBIDE BATEKIN IRTEN ZINEN [0-10]	8,8	9,0

GURE PAZIENTEEN GOGOBEKETZE OROKORRA JASOTAKO ASISTENTZIAREKIN (II)

EUSKARA

P15- Ospitalean egiten den EUSKARAREN erabilerarekiko GOGOBEKETZE-MAILA baloratu. [0-10]	8,0	7,7
P16- POZIK EZ DAUDEN PERTSONEN %. Ez dago pozik 0 eta 4 arteko puntuazioarekin baloratu duten pazienteak.	0,0	0,0
P17- EZIN DUT BALORATU, elkarreragin guztia gaztelania hutsean egin delako (%)	0,4	0,4

EMAITZAK

P18- Baloratu ospitalean jasotako ARRETAREN ERABILGARRITASUNA, ospitaleratu zinenen zenuen osasun-arazoa hobetzeko. [0-10]	8,5	8,8
P19- Zu nola zeunden ikusita, OSPITALEKO ALTA egokia izan zen. (Ez zizuten arinegi eman eta ez zinen egon behar baino denbora gehiago) [0-10]	8,2	8,6

BALORAZIO OROKORRA

P20- Baloratu jasotako arretarekiko GOGOBEKETZE OROKORRA.	8,7	8,8
---	-----	-----

GOMENDATZE-INDIZEA, N.P.S. (Net Promoter Score)*

P21- "0tik 10erako eskala batean (0 ez da batere probablea, eta 10 oso litekeena da), lagun edo senide bati ospitale honetara joatea gomendatuko al zenioke?"*	56,6	61,9
--	------	------

Kalkulua: SUSTATZAILAEN % (9-10 puntu) - AURKAKOEN % (0-6 PUNTU)



5. Gure eragina profesionalengan

Nor gara

Kategorien arabeko dotazioa	
A.1. Fakultatibo med-tekn.	21
A.2 Goi-mailako teknikariak	7
B.1 Diplomatu sanitarioak	100
B.2 Erdi-mailako teknikariak	3
C.1. Tek. Esp. sanitarioak	2
C.3. Tek. Esp. profesionalak	8
D.1. Osasun-laguntzaile tek.	97
D.2 Administrari laguntzaile tek.	20
D.3. Profesional laguntzaile tek.	1
E.1 Menpekoak/Operarioak	56
Z.L. Zuzendaritzako langileak	5
GUZTIRA	320

Ikuztegia, lorezaintza, segurtasuna eta sukaldearen kudeaketa azpikontratatuta daude.



IRAKASKUNTZA

Irakaskuntza zentroa den aldetik, Gorlizko Ospitaleak praktikak egiten ari diren Gradu ikasleak hartzen ditu kategoria sanitario guztietan. Horrez gain, gure autonomia erkidegoko zein beste autonomia batzuetako graduondokoak eta prestakuntza jasotzen ari diren espezialistak (BAME, BAEE eta BAPE) ere hartzen ditu.

2022an, ikasleen gida eta ekografia klinikoko errotazio-gida eguneratu ditugu, eta 4. mailako erizaintzako errotazioan astebete gehitu dugu, zain barneko terapiako taldean eta kanpo-konsultetan egoteko.

Deustuko Unibertsitatean erizaintzako ikasketak eskaintzen hasteak akordio batera iristea ahalbidetu du. Horri esker, 2022-2023 ikasturteetik aurrera, maila bakoitzeko 4 ikasle jasoko ditugu praktikaldi bakoitzeko.

Ikasleek gogobetetze-inkestetan egindako eskaerei erantzuna emanez, 2 pertsonatara igo da ospitalizazio-unitateetako tutoreen kopurua, eta, horrela, txandaka dauden profesionalen estaldura hobea eskaini ahal izan diete ikasleei. Gaur egun, honako tutore hauek ditugu:

Lanbide-kategoria	Kopurua
EZOT	12
Erizaintzako Laguntzailea	1
Osasun-dokumentazioa	2
Erradiologiako Teknikaria	1
Fisioterapeuta	21
Erizaintza	10
Medikuntza	5
Psikologia	1
Farmazia	1
GUZTIRA	54

2021-2022 ikasturtean 74 ikaslek egin dituzte praktikak gure zentroan, banaketa honen arabera:

- o 15 erizaintzako laguntzaile
- o 17 erizain
- o 26 fisioterapeuta
- o 3 erradiologiako teknikari
- o Farmazialari 1
- o 2 master psikologian
- o 1 BAPE
- o 17 egoiliar GK-an, Aringarrietan eta Ekografia klinikoan
- o Fisioterapiako 45 ikaslek 2 lanaldi egiten dituzte (lauhileko bakoitzeko bat) Eguneko Ospitalean

Ikasleek adierazitako BATEZ BESTEKO GOGOBEETZE GLOBALA 9,3 puntukoa da (8.3-10 tartea).

Profesionalen 2 errotazio egin ditugu: Barne-medikuen ekografia klinikoko barne-prestakuntza amaitu dugu, errotazio batekin, eta Lezako Ospitaleko profesional 1 jaso dugu gure ospitaleko errehabilitazioaren prozedura, balorazioa eta kudeaketa ezagutzeko

PRESTAKUNTZA

Zerbitzu Zentralek eskaintzen duen prestakuntzaz gain, 679 profesional prestatu ditugu 16 ikastarotan, eta horietatik 10 Etengabeko Prestakuntzako Euskal Zentroak egiaztatu ditu, guztira 15.5 krediturekin.

Ikastaroaren izena	Parte-hartzaileak
Larruzaleko urradurei heltzea.	86
Nola jardun euspen mekanikoaren kasuan.	59
AUTOBABESA.	20
Autobabesa.	44
Bilaketa bibliografikoak osasun-zientzietako baliabideetan.	14
Oinarizko ekografia kliniko barne-medikuntzarako .	9
Ospitaleratutako pazienteen higieena.	25
BPSOko RNAO jardunbide egokien bultzatzaileak.	41
Sartze periferikoko sarbide baskularrak maneiatzea eta zaintzea.	55
Zain-sarbide periferikoa maneiatzea eta zaintzea.	33
Nomina-ordainagiria SAPen. Interpretazioa eta alderdi praktikoak.	5
Pazientearen segurtasuna.	90
Eguneroko agenda indibidualizatua erabiltzea eta maneiatzea.	110
Gernubideen funtzioa Ekografia Klinikoaz lagunduta baloratzea.	41
Zauri konplexuak dituen pazientearen balorazio integrala egitea eta horri heltzea.	31
Tarteko bizi-euskarria.	16
GUZTIRA	679

5 profesionalak errehabilitaziorako eta disfagiarako kanpoko 2 prestakuntza egin dituzte. Etxe komertzialek dohainik egiten dituzten prestakuntza jardueri ere zabalkundea ematen diegu.

EZAGUTZAREN HEDAPENA

Penintsula osoko jardunaldi eta kongresuetara joan gara, eta Lisboa ere hurbildu gara, eta hainbat kategoriatako 13 profesionalak ekarpenak egin dituzte.

Lankidetzaren mota	Laguntzaile kopurua
Batzorde Zientifikoa	2
Ahozko komunikazioa	8
Hizlaria	6
Posterra	6
Aldizkariko argitalpena	2
GUZTIRA	24



BPSO

Hau izan da gure lehen urtea BPSO bikaintasunarekin konprometitutako zentro gisa. Programaren helburu nagusia da profesionalen artean ebidentziaren kultura zabaltzea, eta hori guztia liderren eta bultzatzaileen laguntzarekin egingo da; izan ere, pertsona horiek ezinbestekoak dira ekimenak egiteko eta zabaltzeko. Zeharkako prozesu guztiek talde horietatik eratorritako premiei laguntzen diete.

Erronka horri heltzeko, ebaluazio-taldeaz gain, talde bat sortuko dugu ezarri beharreko gida bakoitzerako, eta honela ezarriko dira:

- Sarbide baskularra. Ospitale osoa.
- Pertsona eta familia ardatz duten zainketak. Garuneko Kaltearen unitateak.
- Zainketa aringarriak bizitzako azken 12 hilabeteetan. Zainketa Aringarrien Unitatea.

Kategoria guztietako 101 profesional inplikatu dira proiektu honetan, eta honako ondorio hauek izan ditu:

- 5 prestakuntza-ekintza.
- Material berria erostea.
- Prozedurak eguneratzea eta lantzea.
- Kontrol-zerrendak, kartelak, informazio-liburuxkak eta infografiak egitea.
- Eguneroko Agenda Indibidualizatuaren programa informatikoa sortzea.
- Ezagutza zabaltzeko jardunaldietan parte hartzea.

Eskaini diren mediku-azterketak (MA)

2022an Gorlizko Ospitaleko 148 langileri osasun-azterketa eskaini zaie; horietatik 41 gizonetzkoiei egin zaizkie eta 107 emakumetzkoiei.

Azterketa motaren arabera, honela banatzen dira:

MA mota	Guztira
Haurdunaldia	10
Lanbide-gaixotasuna	2
Hasierakoa	58
65 urtetik gorakoak	2
EPE	1
Aldizkakoa	69
Planifikatua	3
Aldi baterako ezintasunaren ondoren lanera itzultzea	2
Zuzendaritzak eskatua	1
Guztira	148

Txertaketak

2022an 66 txerto-dosi eskaini zaizkie Gorlizko Ospitaleko langileei; sexuaren eta txerto motaren arabera, honela banatu dira:

Txertoa	Gizonetzkoak	Emakumetzkoak	Guztira
A Hepatitisa	3	17	20
A+B Hepatitisa	5	11	16
B Hepatitisa	13	9	22
Beste txerto batzuk	1	3	4
Hirukoitz birikoa	1	3	4
Guztira	23	43	66

Horrez gain, 2022ko gripearen txertaketa-kanpainaren barruan, 116 profesional eta kanpoko 19 pertsona txertatu ditugu.

Istripuak

Istripuen atalean hauek dira 2022ari dagokion kopuruak:

Baja izan dira		Ez dira baja izan		Guztira
Ospitalekoak	63	Ospitalekoak	17	80
In itinere	2	In itinere	6	8
Guztira	65	Guztira	23	88

Istripu horietatik 17 gizonetzkoenak izan dira eta 71 emakumetzkoenak.

Osakidetzako planean oinarrituta, Gorlizko Ospitaleak ekainaren 14an Euskararen Erabilera Normalizatzeko III. Plana (2022-2028) onartu zuen zuzendari-gerentearen 90/2022 Ebazpenaren bidez.

Gorlizko Ospitaleko 3. Euskara-plana

Plan berria onartzeak SAPen egitura egokitzea ekarri zuen, errealitate berriarekin bat etortzeko: administrazio-unitateak berrantolatu ziren, unitate berriak sortu ziren eta ospitalez kanpoko unitatea ezabatu zen.

Bestalde, lehentasun espezifikoak (3. lehentasuna desagertu da) eta derrigortasun-daten indizeak eguneratu ziren, eremu soziolinguistikoaren arabera (herritar euskaldunen % 36,61).

Derrigortasun-datak eta hizkuntza-eskakizunak

2022an 31 data ezarri ziren guztira, eta horietako gehienak euskara-planean ezarritako gutxieneko ehunekoa betetzeko eskatu ziren.

Urtearen amaieran Ospitalez Kanpoko unitatea desagertu egin zen, eta horrek 16 derrigortasun-data galtzea ekarri zuen, baita hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta zuten profesionalen ehunekoa jaitea ere. Hurrengo koadroetan bilakaera ikus daiteke.

Derrigortasun-datak	2020	2021	2022
DD ezarrita	113	129	143
DD iraungita	105	116	126
DD + HE egiaztatuta	78	86	76

Hizkuntza-eskakizunak	2020	2021	2022
HE bat egiaztatuta	176	185	158
Dagokiona edo altuagoa	139	152	121
Salbuetsiak	24	15	10

Euskalduntzeko eta alfabetatzeko ikastaroak

2022-2023 ikastaroan ez zen langilerik liberatu: bi orduko ikastaroa ukatu egin zen eskatzaileak baldintzak betetzen ez zituelako; bost ordukoa, zerbitzuaren beharreatatik.

Lanorduetatik kanpoko ikastaroei dagokienez, nabarmen jaitsi zen 2022-2023 ikasturterako matrikulazioa.

	2020-2021	2021-2022	2022-2023
Lanorduz kanpo	19	19	11
Autoikaskuntza	4	5	4

Prestakuntza euskaraz

Gorlizko Ospitaleko 35 profesionalak izena eman zuten Osakidetza Erakunde Zentralak Jakinsarearen bidez euskaraz eskainitako etengabeko prestakuntzako 10 ikastarotan; horietako 8k ikastaro bat baino gehiago egin zuten, eta guztira 46 matrikulatu ziren. Denak izan ziren aurrez aurreko ikastaroak.

Bestalde, Erakunde Zentralak euskaraz lan egiteko hiru prestakuntza-ikastaro eskaini zituen, eta ospitaleak horietan guztietan zegokion kupoa osatu zuen. Gainera, ospitaleko langile batek Emergentziak erakundeak antolatutako ikastaro batean parte hartu ahal izan zuen.

2022ko helburuen betetze-maila

2022an III. Euskara Plana idatzi eta onartu zen, egitura aldatu zen eta erakundearen ehuneko berriak egokitu ziren; gainera, Euskara Batzordea berritu zen.

Fatxadako obrak aprobetxatuz, kanpoko errotulazio nagusia berritu zen, euskara-planean ezarritako irizpideei jarraituz. Gainera, euskaraz lan egiteko prestakuntza bultzatu da.

Hala ere, 2022an bete gabe geratu dira profesionalen identifikazioari eta barne-harremanei dagozkien kontuak

Euskara sustatzeko ekimenak

- o Euskararen Eguna: "Herritarrak osasunean hezi" ekimena errepikatu zen; horretarako, Gabonetako txartel bat egitea proposatu zen, gure jardueraren atal bat erakusteko, edo herritarrei aholku bat emateko. 5 lan jaso ziren.
- o Korrika: Gorlizko Ospitaleak, langileen ekimenez, 22. Korrikan parte hartu zuen. Gorliztik apirilaren 7an pasatu zen eta 1758. kilometroa egokitu zitzaigun.
- o Euskaraldia: 2022ko edizioan lau Arigune sortu ziren: Garbiketa, Administrazioa, Basauri eta Gernika. Guztira 39 pertsonak eman zuten izena gure erakundearen bitartez.



Jarraian, ospitaleko informatika sailak egindako jarduera nagusiak aurkeztuko ditugu.

Profesionalentzako laguntza

2022ko ekitaldian, erabiltzailearen 4.000 dei ingururi erantzun diegu, hainbat jarduera-eremuri buruzkoak: komunikazioak, bideokonferentziak, ofimatika-kontsultak, elementu berriak konfiguratzeko, sistemak eguneratzea eta parametrizatzea, informazioa ustiatzea, erabiltzaileen mantentzea, baliabideak eskuratzeko baimenak, etab.

Azpiegiturak

Mikroinformatikako parkea handitu da, 220 lanposturaino.

Ospitaleko "LAN" sarea handitu da. Iaz datu finkeen sareko 20 hartualdi gehiago jarri ziren handitu, gaur egungo 280 hartualdietara iritsi arte.

2022an zentroko wifi azpiegitura osoa berritzeko eta handitzeko proiektuari ekin genion. 70 a.p. (access point) izatetik 110 puntu izatera igaroko gara, eta, horrela, wifi estaldura geografikoa ospitalearen % 100era zabalduko dugu. Proiektuan hari gabeko sarbide guztiak berritzea jasotzen da (azken belaunaldiko Cisco a.p. jarri genituen, Wi-Fi 6, Radio Dual 4 x 4 (5 GHz), CleanAir Ciscoen RF ASIC batekin, MU-MIMO, PoE eta abar inplementatzen dituztena).

Softwareak eta garapenak

ADI aplikazioaren garapena, ospitaleko errehabilitazio-terapien jarraipena eta kontrola egiteko. Medikuek, erizainek, fisioterapeutek, laguntzaileek eta zeladoreek hartzen dute parte.


Dietoolak. Ospitaleratze-unitateetatik sukaldara jakinarazpenak bidaltzeko modulua aktibatzea.

Pazienteentzako eta senideentzako kortesiako wifi zerbitzua ezartzea. Wifi Bisitari.

Elkarlanerako eta barne-lanerako espazioak berregituratzea. Barne-komunikazioa eta Work areak.

Era berean, Intraneten mantentzea eta ospitalearen urteko memoria egiten ditugu.

Informatikaren arlotik ere, datu pertsonalen segurtasunari buruzko guztiari estaldura eta euskarria ematen diogu



6. Gure eragina ingurunean

Gizartea

Euskadiko osasun publikoko Gobernamendu Onaren Kodeak gako bezala Gizarte-erantzukizun Korporatiboa bultzatzen du, erakunde sanitarioek gizarte-inguruari eta ingurumenari egiten dieten ekarpena hobetzeko.

Gorlizko Ospitaleak gizartearekin duen konpromisoa argi uzten du jasangarritasunaren, gardentasunaren eta gobernantzaren inguruan garatzen dituen ekintzen bidez. Hala, helburu eta ekintza neurgariak planteatzen ditu eta elkartasun, ekitate, unibertsaltasun, eraginkortasun, kalitate eta lan seguruari buruzko printzipioak sartzen ditu.

Ziurtagiriak

ISO 14001 Araua OHSAS 18001ekin

Gorlizko Ospitaleak 14001 ISO arauaren (Ingurumen-kudeaketako Sistema) ziurtagiria du 2010etik, eta 18001 OHSAS (Laneko Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeko Sistema) ziurtagiria 2015etik. Horrez gain, Energia Ziurtagiria ere Eusko Jaurlaritzak ematen duen kalifikazio altuenarekin lortu du: A eraginkortasun maila.

Beste alde batetik, 2011tik Gizarte-erantzukizun Korporatiboaren inguruko Urteko Memoria egiten da GRI (Global Reporting Initiative) delakoan oinarriturik.

Aliantzak eta interes-taldeak

Erakunde edo/eta talde hauekin aritzen gara lankidetzan estuan

- o Biocruces
- o Osakidetza Bizkaia ingurumen taldea.
- o Osasun Saila
- o Osakidetza
- o Bizkaiko Foru Aldundia eta zahar-egoitzak.
- o Eremu pribatuko Bizkaiko ospitaleak
- o Aseguru-etxeak.
- o Gure ospitalearen menpeko zentroak dituzten udalak.
- o EHU/UPV
- o Deustuko Unibertsitatea
- o Euskalit

Programak eta proiektuak

2022an, proiektu garrantzitsu hauek azpimarra ditzakegu:

- 2022ko maiatzetik aurrera, biomasako beste galdara bat instalatu da, edukiera txikiagokoa, urte osoan biomasak ekoiztako energiarekin funtzionatu ahal izateko, eta ez neguko hilabeteetan bakarrik, orain arte egiten genuen bezala.
- Espedienteak digitalizatzeko eta suntsitzeko proiektuarekin jarraitzen dugu, bai eta isilpeko suntsiketarako paperaren bilketa gutxitzeko proiektuarekin ere.
- Espedienteak digitalizatu eta suntsitu.
- Ospitaleko argiztapenaren eta eraginkortasun energetikoaren mapa egin da. 2022an energia-auditoretza egin da eraginkortasun energetikoaren etengabeko hobekuntzarekin jarraitzeko.
- Pazienteak lehorrean garbitzea: ur-kontsumoa murriztu da.
- Aktiboetako bigarren bizitza emateko proiektua: koltxoak eta besaulkiak (jarraituko dugu).
- Erakunde Zentraletik aktiboak kudeatzeko proiektua, inbentarioa egiteko fasea eta proba pilotua 2023an.
- Pazientearen segurtasuna, erorikoak minimizatzea: euspen-zingilak hobetu.
- Gurgil-aulkien parkea aztertu eta berritu (jarraituko dugu).
- Txertoak jartzen lagundu.
- Garbiketa-zerbitzuaren prestazioa hobetu, karteldegia solairura egokituz, unitate bakoitzean langile finkoekin lan egiteko.
- Sukalde-zerbitzuko gorabeheren erregistroa zuzenean integratu programa korporatibotik, hobeto erregistratzeko eta kontrolatzeko.
- Mantentze-lanen Plan Zuzentzailea sortu, aldizkako prebentzio-lanak planifikatzeko.

Hobekuntzak ekipamendu, instalazio eta prozesuetan

EKIPAMENDUAN

2022an, ekipamendu asistentziala eta periferikoa hobetzeko inbertsio handiak egin dira. Kasu guztietan erosketak berdearen prozedura bermatu da, eta energia-eraginkortasun hobeko ekipoa erosi dira, zerbitzu jasangarriagoa lortzeko.

Sukaldeko zerbitzua

- Sukaldeko izozkailua.
- Erretilu isotermikoak.

Asistentziala

- Ohe bariatrika.
- Gimnasioko ohatilak.
- Ekografoa eta ekografiako softwarea.
- 94 gurgil-aulki.
- Ikusmena kontrolatzeko gailua.
- Garabi mugikorra.
- Kontrolatuko medikazio-hozkailuak.

INSTALAZIOETAN

Gorlizko Ospitaleko instalazioak berritzea eta hobetzea funtsezkoa da erabiltzaileei zein profesionaleri zerbitzu egokia emateko. Urte honetan, 2022ko azpiegituren planean jasotako hobekuntza hauek egin dira:

- Irogailuak berritzeko lanekin jarraitu, II. fasea.
- Fatxadak berritzeko lanak, II. fasea.
- Ospitaleko Giza Kontsumorako Ur Hotzaren (GKUH) hargune orokorraren linea hobetu galerien bidez.
- Potentzia gutxiagoko biomasa galdara instalatu da.
- Lorategi-eremuak egokitu: oholtzak eta kafetegiko terraza.
- Kanpo-kontsultetako sarreran ate automatikoa jarri, irisgarritasuna hobetzeko.
- Bigarren eskuineko terrazako atea eskusarekin jarri, irisgarritasun hobea lortzeko.
- Ospitaleko Heliazalera berritzeko obra.
- Errehabilitazio-eremuko klimatizazio-ekipoak instalatu.
- Errehabilitazio-eremua beritu: saneamendua egokitzea, pintura, zaharberitzea, altzariak.
- Kanpo-kontsulten eremuan eguneroko materialerako biltegi berria egitea.
- Ospitaleko kanpoko hormaren zati bat zaharberitu, paisaia-mural bat egitea barne.
- Ospitaleko eraikin guztien plano digitalizatuak egin, altzariak barne.
- Esterilizazio-gela birmoldatzeko lanak.
- Interbentzionismo-gela birmoldatzeko lanak.
- Eraikin nagusiaren estalkian bizi-lerroak jarri, azalera osoa eta terrazak hartuz.
- 3. Erdiko jantokiko ate automatikoa.
- 1 Esk. solairua eraberritzea: UBS instalazioak, berogailua eta GKUH, gela guztietako sabaian LED luminariak jarri, erizaintzako kontrola beritu, antolamendu eta altzari berriak.
- Pediatriako gela berria egiteko obra hasi, sukaldeko eraikinean.

PROZESUETAN

Prozesuen araberako kudeaketaren atalean, gainera, prozesuetako batzuk berrikusi eta egokitu dira, horiek hobetzeko:

- Hobekuntzak, nutrizioko prozesua berrikusi: orgak entregatzeko eta jasotzeko ordena egokitzea.
- Mantentze-lanen azpi-prozesuaren barruan plan zuzentzailea egin, mantentze-prozesuari erabat heltzeko.
- Sukaldaritza-zerbitzuaren prozedura integralak berrikusi, egokitzeko.
- Garbiketako langileak solairuko beharretara egokitu.
- Farmazia garbitzeko IT berria sortu.
- Ur gelifikatuaren protokola berrikusi, prestatzean eta hondakinen kudeaketan ekonomizazioa.
- Ingurumen-batzorde berria sortu.
- EAM programa instalatu, Elektromedikuntzan konpondu behar diren ekipoen trazabilitatea hobetzeko.
- Pazientea helikopteroz lekualdatzeko protokola eguneratu.
- Ospitalera egokitutako obra-protokola.

7. Gure eragina berrikuntza arloan

Berrikuntza-plana eta I+G+b batzordea

Gorlizko Ospitalean, berrikuntza sustatzea gure Plan Estrategikoaren helburuetako bat da.

Ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren bidez jasangarritasunaren bidean hobeto kokatzen gara, aldaketei egokitzea erraztuz.

Zerbitzuak, prozedurak eta proiektuak eraldatzeko modu horrek balioa eranstean du, pazienteei osasun-arreta pertsonalizatua emanez, horixe baita gure lanaren helburu nagusia. Lan hori norbanakoaren eta komunitatearen osasun-emaizak hobetzera bideratuta ere badago.

Bide eraldatzaile eta dinamiko hori pertsonen gaitasunetan, esperientzian eta pazienteen beharretan oinarritzen dugu, baita enpresen aurrerapen teknologikoetan eta proposamenetan ere.

IDiGOR Batzordea

I+G+b Batzordea (IDiGOR) Gorlizko Ospitalean berrikuntza kudeatzeko egiturazko organoa da, ideia berritzaileak sortzea bultzatuz, ideia horiek balioesteko moduko I+G+b proiektu bihurtuz, **profesionalen** ezagutza babestuz eta ustiatuz, zaintza-jarduerak ezarriz eta transferentzia teknologikoa eta erakundeari egiten zaiona kudeatuz.

Batzordearen xedea hau da: balioa ematea produktuen, zerbitzuen, prozesuen edo antolaketa-metodoen aldetik. Horretarako ideien ekarpenak sustatzen dira, arlo guztietan eta profesional guztien parte-hartzearekin, ezagutza, esperientzia eta buruargitasuna eranstean baitute.

Batzordearen eginkizunak hauek dira:

- Gorlizko Ospitaleko berrikuntza-ildoak baliozkotu.
- Berrikuntza-zorroan sartzen diren ideiak baloratu eta ideia horiek garatzen lagundu, sistemara transferitu arte.
- Profesionalen artean berrikuntza-kultura sortzea bultzatu eta sustatu.
- Berrikuntzaren urteko kudeaketa-plan bat egin eta onartu. Plana bat etorriko da, batetik, IIS BC Bren Berrikuntza Planarekin eta, bestetik, Gorlizko Ospitaleko Plan Estrategikoarekin eta Kudeaketa Planarekin.
- Berrikuntza eta horrek erakundearen duen eragina ebaluatu.
- IIS BC Bren Berrikuntza Batzordeari aurkeztu beharreko lan-ildoak (estrategikoak) identifikatu.



Programak eta proiektuak

- **OREKA proiektua:** EHUko ingeniariekin lankidetzan, plataforma sentorizatu bat diseinatu nahi da, hainbat askatasun-maila dituen, pazienteen oreka ebaluatzeko.
- **GOGOA-HANK proiektua:** Balioetsi garuneko kaltea duten pazienteengan ibilketaren errehabilitazioa HANK gailuarekin egitea eraginkorra den, terapia konbentzionalarekin alderatuz.
- **PHYSIOSET APP:** APP erabili ohiko tratamenduaren aurrean eraginkorra dela frogatzeko sorbaldako lesio zehatzetan. Esku-hartze fasea amaituta, aztertze, emaitzak ateratzeko eta zabaltzeko zain dago.
- **HAND TUTOR proiektua:** Enpresarekin lankidetzan, helburua da Hand Tutor gailuaren bidez eskuaren errehabilitazio intentsiboa egiteak duen eraginkortasuna baliozkotzea
- **LESION MAP:** Garuneko lesioen mapaketa erabiltzen duen azterketa pilotua, hartutako garuneko kaltea duen pazienteak errehabilitazioari nola erantzungo dion iragartzeko tresna gisa.
- **TFG eta TFM PROIEKTUAK:** EHUrekin lankidetzan, ingeniartzako ikasleen gradu-amaierako proiektuak egiteko. Aukera desberdinen barruan, gurpil-aulkietara egokitutako elementu berriak diseinatzen lan egin da (oxigeno-bonbonak eramateko gailu seguruagoa, iraulketa saihestuz, erraz jartzeko eta eroso garraiatzeko moduan), baita ohiko elementuak eta/edo osagaiak hobetzen eta berri diseinatzen ere (oin-euskarria berri diseinatzea, eserleku etzangarria).
- **INTENDOLOR PROIEKTUA:** Biocrucesekin lankidetzan, lunbalgia kroniko zehaztugabea duten pazienteen kasuan, mina maneiatzeko eskolak egin duen azterketa, ohiko tratamenduarekin alderatzeko. Esku-hartze fasearen hasiera.
- **COVID saiakuntza klinikoetan LANKIDETZA, Biocruces Bizkaia Ikerketa Institutua buru dela.**

8. Emaitzak

Emaitza estrategikoak

Jarraian, 2022ko ekitaldiko jarduera ekonomikoari buruzko koadro nagusiak aurkeztuko ditugu:

Diru-sarreraren eta gastuen balantzea.

Inbertsioak.

Ekitaldiko batez besteko kostuen eta kostu metatuen azterketa.

Diru-sarreraren eta gastuen balantzea

2022 URTEKO DIRU-SARREREN ETA GASTUEN BALANTZEA			
GASTUAK	2022	DIRU-SARRERAK	2022
Produktu farmazeutikoak	514.100	Sarrerak zerbitzuak emateagatik. Prog.-kontr.	28.270.644
Material sanitarioa	632.260	Hirugarrenen sarrerak	200.379
Beste hornikuntza batzuk	443.589	Negozio-zifraren zenbateko garbia	28.471.023
Kanpoko enpresen zerbitzuak	1.257.034		
Kanpoko zerbitzuak eta bestelako gastuak	1.081.535		
Homidura	15.170		
Funtzionamendu-gastuak guztira	3.943.687		
Lansariak, soldadak eta parekatuak	18.477.615	Beste ustiapen-sarrera batzuk	2.280
Gizarte-kargak	6.052.000		
Personal-gastuak guztira	24.529.616		
Ustiapen-gastuak guztira	28.473.303	Ustiapen-sarrerak guztira	28.473.303
Finantza-gastuak guztira	0	Finantza-sarrerak guztira	0
GASTUAK GUZTIRA	28.473.303	DIRU-SARRERAK GUZTIRA	28.473.303
EKITALDIAREN EMAITZA			0

Inbertsioak

2022ko INBERTSIOAK		€
		1.409.988
Estrategikoak		1.115.795
Instalazioak		1.069.031
	Fatxadak konpontzea, 2. fasea	711.597
	Igogailuak	357.434
Lanak		46.764
	Desfibriladoreak	14.656
	Bizikleta ergometrikoa esfortzu probarako	18.108
	Ekografoa	14.000
Gureak		294.193
Instalazioak		223.411
	RECORD STA 21 ate automatikoa instalatzea.	4.182
	Heliazalera eraikitzea ospitale-esparruan.	49.233
	Igogailuetako karga-plataforma, hobi eta arrapala berriak egiteko obra osagarriak	43.957
	3. solairuko familien jantokirako ate automatikoa.	3.985
	ADVANCE AUN22 G CR FAGOR ate bikoitzeko izozkailu bertikala.	4.251
	Kanpo-konsultetarako sendaketa-gela berria.	42.557
	Pediatria-gela berria igerilekuaren eraikinean.	44.679
	Eraikin nagusiko 2. Eskuineko solairuko terrazarako sarbidea.	30.569
Ekipamenduak		70.781
	Image 3 XXL ohea obesitate morbidoa duten pazienteentzat.	4.120
	Gosarirako orgak.	17.603
	Mylab X6 Digital ekografoa.	14.990
	ZIMMER ENPLUS talka-uhinen ekipoa, 2.0 bertsioa.	7.623
	COSMAN irrati-maiztasuneko sorgailua.	17.545
	Ikusmena kontrolatzeko gailua ESSILOR VISIOTEST LED.	2.883
	Transferentziarako garabi mugikorra erostea, LIKO VIKING XL.	6.017

Ekitaldiko batez besteko kostuen eta kostu metatuen azterketa.

2022 URTEKO KOSTUEN AZTERKETA			
OSPITALIZAZIOA		KANPO-KONTSULTAK	
Kostua zerbitzuko\sektioko	22.612.057	Ospitalea	492.265
Barne-medikuntza	6.038.745	Kostua lehen kontsultako	342
Susperraldia	3.448.881	Kostua ondorengo kontsultako	171
Zainketa aringarriak	2.589.864	Uribeko ESla	268.935
Errehabilitazioa	16.573.312	Kostua lehen kontsultako	28
Garuneko kaltearen errehabilita:	11.995.709	Kostua ondorengo kontsultako	14
Traumatologiako errehabilitazio	1.393.186	Barrualdeko ESla	372.137
Errehabilitazio orokorra	3.184.416	Kostua lehen kontsultako	36
Kostua alden arabera	12.981	Kostua ondorengo kontsultako	18
Barne-medikuntza	6.472	ARLO TERAPEUTIKOA	
Susperraldia	6.495	Ospitalea	1.532.713
Zainketa aringarriak	6.442	Kostua pazienteko (ambulatorietan)	2.362
Errehabilitazioa	20.486	Uribeko Eskualdea	1.229.482
Garuneko kaltearen errehabilita:	23.024	Kostua pazienteko	312
Traumatologiako errehabilitazio	11.807	Barrualdeko Eskualdea	1.878.020
Errehabilitazio orokorra	18.732	Kostua pazienteko	375
Kostua egonaldien arabera	552	URIBEKO ESIARI LAGUNTZEA	
Barne-medikuntza	525	Inguruko X Izpiak	54.332
Susperraldia	514	EUSKERAGATIK ORDEZKATZEA	
Zainketa aringarriak	539	Euskeragatik ordezkatzea	19.342
Errehabilitazioa	563	KOSTU EZ EGOZKARRIAK	
Garuneko kaltearen errehabilita:	566	14.037	
Traumatologiako errehabilitazio	545		
Errehabilitazio orokorra	560		


Emaitzak bezeroen arloan

Bizkaiko eta Uribe Kostako gure pazienteei eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan arreta emango zaiela bermatzen dugu, gure asistentzia-dispositiboen bidez.

Ospitalizazioa

Guztizkoa	Ingresuak	Egonaldiak	Batez b. egonaldia	Okupazio indizea	Altak	Exitusa
	1.757	40.954	21,6	89,0	1.742	377
Errehabilitazioa	787	29.442	34,6	98,9	809	45
Orokorra	184	5.688	30,7	114,2	170	0
Garuneko kaltea	485	21.196	43,7	148,1	521	45
Traumatologia	118	2.558	21,7	26,1	118	0
Barne-medikuntza	970	11.512	11,8	73,1	933	332
Susperraldia	596	6.705	11,3	69,0	531	123
Z. aringarriak	374	4.807	12,9	60,9	402	209


Altak sekzioen arabera



Errehabilitazioko kanpo-kontsultak


Guztizkoa	Lehen kontsulta	Ondorengo kontsultak	Kontsultak guztira
	11.401	19.805	31.206
Ospitalean	481	1.913	2.394
Uribeko ESla	5.544	8.050	13.594
Barrualde-Galdakaoko ESla	5.376	9.842	15.218

Errehabilitazioko kanpo-kontsultak



Errehabilitazioko terapien unitatea


Guztizkoa	Prestaz.	Asistentziak	Pazienteak	Asistentzia/paziente batez bestekoa
	465.339	188.882	10.335	80
Ospitalean	151.219	75.800	1.383	55
Uribeko ESla	136.933	48.335	3.946	12
Barrualde-Galdakaoko ESla	177.187	64.747	5.006	13




Hauek dira pazientearen segurtasunaren arloko adierazle nagusien bidez neurtutako emaitzak:

Pazientearen segurtasunaren arloko adierazleak	2018	2019	2020	2021	2022
Erorikoak 100 egonaldiko	3	3	5	4	5
Pazienteek ospitalean izandako PEUak 100 altako	5,4	5,3	6,3	7,5	6,7
Infekzio-tasa orokorra 100 ingresuko	15	11	10	17	16
Medikazio-gertakariak	46,0	21,0	34,0	28,0	22,0
Osakidetzako PSJIS aplikazioan sarreren kopurua	142	137	114	95	134
Pazientearen Segurtasunari buruzko gaiak Jakinarazteko eta Ikasteko Sistema (PSJIS)					


Pazienteek ospitalean izandako PEUak 100 altako



Infekzio-tasa orokorra 100 ingresuko




MEDIKAZIO-GERTAKARIAK



Emaitzak gizartearen eta ingurumenaren arloan

Ondoren, 2022 urtean zentroak izan dituen kontsumoen eta hondakinen kudeaketaren inguruko datu nagusiak aurkezten ditugu.

Ez da desbideratze nabarmenik egon aurreko ekitaldiekin alderatuta. Elektrizitatearen eta gasaren kontsumoa pixka bat handitu dugu, baina uraren kontsumoa nabarmen murriztea lortu dugu



9. Bukaerako hausnarketa

Memoria honetan jarduera-alderdiak nahiz alderdi ekonomikoak jorratu ditugu, urtean egindako lana ezagutzen eta ulertzen lagunduko duen informazioa emanez.

Emaitzak planteatutako helburuei dagokienez espero zirenak dira.

Gorlizko Ospitaleko 2023-2028 Plan Estrategiko berriari ere forma ematen hasi gara. Etapa berri honi ilusioz ekiteko prestatzen ari gara, gure Xedearekin, Ikuspegiarekin eta Balioekin lerrotatuta, horiek gidatuko baitituzte gure jardunak datozen urteetan.

Beti bezala, argibide edo informazio gehiago behar izanez gero, zuen esanetara gaude.

Carmen Rodriguez
Zuzendari-gerentea



Harremanetan jartzeko, bide hauetakoren bat erabil dezakezu:

E-posta: hospital.gorliz@osakidetza.eus
Telefona: 0034 94 400 66 02
Helbidea: Urezarantza Ibiltokia, 1. 48630 Gorliz – BIZKAIA
Webgunea: <https://www.osakidetza.euskadi.eus/portada-hospital-gorliz/>